



■ ODOL-EMAILEAK

Bazkaria, gaur

25 aldiz baino gehiagotan odola eman dutenek omenaldia jasoko dute gaur 13:30etan, eta segidan bazkaldu egingo dute, Oianumen. ■

■ UDALA

Sorgintxuloko sarrera itxita, bihar

Astelehenean itxi egingo da Sorgintxuloko sarrera, bertan dagoen zuhaitz zahar bat botatzeko lanak direla eta. Bai Galarretatik eta baita Urnieta aldetik datozen kotxeek ere, ezingo dute Sorgintxuloko bidea hartu goizeko 09:30etatik 12:30etara bitartean. ■

■ OKERRAK ZUZEN

Autobus zerbitzu berrian, geltoki berriak

Atzoko Kronikan argitaratu zen Aldundiak autobus zerbitzuan zein aldaketa egingo dituen. Hernanitik Donostiara Aieten barrera joaten den autobusen geltoki batzuk aldatu egingo dira, herri-gune ko bide publikoetan egingo diren norabide aldaketen ondorioz. Joanekean, egungo geltokian mantenduko dira, Atsegindegitik abiatuta. Baina etorreran, autobusa Sorgintxulotik Sagastialdera joango da, eta Montebideo kalean gora, Elkanora eta Atsegindegira itzuliko da. Donostiara joateko Antziolako geltoki berri horietan ere hartu ahal izango da autobusa. ■

■ HEZKUNTZA

Bilera irekia, asteazkenean

Hernaniko Hezkuntza Plataformak deituta, bilera irekia egingo da datorren asteazkenean, hilak 29, 20:00etan Biterin. Parte hartzeko deia luzatu dute. ■

■ ELKANO 17

Feng Shuiari buruz, doan

Elkano 17 Emakumeen Zentroan Feng Shuiari buruzko doako hitzaldi bat emango da asteartean, 18:00etan. ■

■ OSIÑAGA ISURKETA ERREKAN

Isurketa atzo Osiñagan, Urnietarekin mugan

Aparra eta hildako arrainak ikusita eman zuen abixua bizilagun batek. Osiñagan gertatu da isurketa, Errotaran Goikoa pasata, Hernani eta Urnietaren arteko mugan, AHTaren obren ondoan.

ISURKETA bat izan zen atzo Osiñagako errekan. Hernaniko Udaltzaingoa, Ura Agentziako teknikariak eta Ertzaintza gerturatu ziren, eta gertatutakoa aztertzen ari dira. Ez dakite, zehatz-mehatz, nondik datorren isurketa.

Badirudi jatorria Urnieta eta Hernani arteko mugan dagoela, Loiditik eskubira hartu, Otsua-enea paretik, eta Errotaran goikoa pasata, AHTaren obren inguruan. Obretako zikinak garbitzeko depuradora izan daiteke jatorria. ■



Aparra eta hildako arrainak azaldu dira.

■ BERRERABILPEN ZENTROA

«Berrerabili gabe, toneladaka zabor sortzen da»

Bi urte eta erdi dira Nafar kalean berrerabilpen zentroa ireki zela. Proiektuak martxan jarraitzen du, eta zabaltzen ari da: josteko eta oinarritzko informatika ezagutzak lortzeko tailerrak emango dituzte.

«HONDAKIN bihurtutako gauzeekin diseinu berriak sortzen ditugu», azaldu du Aikari Lizasok. Maria Fernandezekin batean, Nafar kalean dagoen berrerabilpen zentroa ireki zuen duela bi urte eta erdi.

«Kontsumo filosofia desberdin bat bultzatu nahi dugu. Europan oso ohituta daude, baita maila ekonomiko altukoak ere, bigarren eskuko gauzak erabiltzera. Hemen ere ohitzen ari gara. Oso kalitate oneko gauzak ekartzen dizkigu jendeak. Berrerabiliko ez bagenu, toneladaka zabor sortuko genuke».

Baserritar jantziak prest

Aprobetxatu daitezkeen telekin baserritar jantzi berriak egiten dituzte, adibidez. «Lehengo urtean lanez gainezka ibili ginen azkenerako, eta aurrean lehenago hasi gara. Asko eskatzen dizkigute».

Josteko tailerra, martxan

Berrerabiltzeko filosofia bultzatzeko, baita ere, josten ikas-



Irene, Maria Fernandez, Aikari Lizaso eta Luken, berrerabilpen zentroan.

teko tailerra jarri dute martxan. «Puntuak, gantxilloa... Norberaren imajinazioa garatu eta konponketak edo modalketak egiteko gai izatea da helburua. Dagoeneko hasi gara tailerrekin. Bakoitza ahal edo nahi duenean etorri

daiteke, eta bere erritmoa jarraitu. Goizero izaten da aukera, 10:00etatik 12:00etara, eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara.

Informatika tailera, laster
Oinarritzko informatika taile-

rra emateko asmoa ere badute. «Ez dakigu erabiltzen dauzlagun telefono mobilaren %5 besterik». Jendearen beharretara egokituko dituzte tailerrak, beraz, izena eman behar da: 943 50 63 41 edo 661 331 113. ■

cenor
BALANTXA
ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!

NAGUSIA, 17
☎ 943 33 40 22

HERNANI VISA
TXARTELAREKIN
%5eko DESKONTUA!

3 hilabetetan ordaintzeko aukera
ERREKARGURIK GABE

TXANTXILLA
salgai

Garaje itxiak
21 m²

Informazioa
943 42 95 21

UZA TXANTXILLA
BERRITUA 2014-2015

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK • Egunez: Tanco URNIETA Idiazabal, 39 943 550942 • Gaez: Alzpuru Latsunbeberri 11 943 336077

TXANTXILLAKO FESTAK



Arima bihurrien maxkuri eta zezenek jarri zuten giroa arratsaldean.

Arimak alaitzeko moduko festa izan zen atzo Txantxillan

Krossa Raul Gomez lasartearrak eta Mara Olazabal hernaniarrak irabazi zuten. Patata-tortilla goxoena, berriz, Leire eta Unai Ruedak egin zuten.

ASPERTZEKO tarterik ez zegoen atzo, Txantxillako festetako egitarauan. Goizeko 09:00etan diana joz hasi zen jai giroa auzoan, eta 09:30etan, Santa Barbarara igoera lasterketa hasi zen. Raul Gomez lasartearra izan zen azkarrena, 00:22:40 denborarekin, eta nesketan, Mara Olazabal hernaniarra, 00:30:34 denborarekin. Hernaniar azkarrena, berriz, Anartz Artola izan zen, 00:24:33 eginda. Ermitan kanpaia jo zutenek ere jaso zituzten sariak. Eta saririk espero ez zuenak ere jaso zuen bat, berezia: Ibai Alba, auzotarra eta kirolaria, karrera antolatzen aritua, omendu zuten.

Txupinazoan, berriz, Karmen Etxeberria omendu zuten, Laubidieta etxean jaioa. Maialen Lujanbiok bertsoa kantatu zion, eta dantzariak, Agurra dantzatu zioten.

Arratsaldean festak aurrea egin zuen dozenaka ekitaldirekin. Tarteetan, arima bihurriak atera ziren kalejiran, maxkuriekin eta zezenekin jendea dantzan jartzera.

Eguna bukatzeko, saiheski jan ederra egin zuten. ■

Karmen Etxeberria omendu zuten. Argazki eta bideoak: kronika.net

Ibai Alba korrikalariari sorpresa eman zioten.



Mara Olazabal eta Anartz Artola izan ziren hernaniar azkarrenak.



EZKONTZA HERRIKOI FEMINISTA

Maitasun eredu ezberdinen aldeko festa

Bollorria ospatu zuten atzo Lore Etxeberria eta Kattalin Minerrek. 100dik gora lagun bildu ziren Atsegindegian egin zuten ezkontzan. Aldarrikatu nahi izan zuten familiaren oinarria ez dela bikotea, eta maitatzeko modu asko daudela. ■

Literatur
txokoaJUDITH QUEIJA ETA JAVIER HERNÁNDEZ,
INMAKULADAKO IKASLEEK GOMENDATZEN DIZUTEERREGEAREN
MEZULARIA

Toti Martinez de Lezea

Ikasturte honetan, *Erregearen Mezularia* izeneko liburua irakurri dugu, XIII. mendeko gertakizunak azaltzen dituen, Navas de Tolosako gudua, besteak beste.

Protagonistak, Otxoa Izurak, Nafarroako erregeari setio baten berri eman behar dio, haren lurraldeak ez galtzeko.

Azken bolada honetan, honen antzeko eleberri historiko asko hedatzen ari dira, iraganeko pertsonaien istorioa eta dibertsioa ondo tartekatzen dutelako. Liburuan ikusi dugu idazleak Euskal Herriarekiko duen interes handia, izan ere, ipuinean agertzen diren kokapen gehienak Nafarroan daude. Istorioan Gasteiz ere oso garrantzi handia du, bertan setio bat izan zelako. Gertakizun hauek liburuaren argudioaren hasiera ematen dute.

Gure iritziz, oso liburu ona da, garaiko bizimoduak, akzioa eta jakin-mina oso ondo lantzen dituelako. Eszenak oso ondo irudikatu ditugu. Pertsonaiak interesgarriak dira, eta denbora guztian dakigu pentsatzen edo sentitzen dutena. Espero ez genuen amaiera misterioitsu bat du, eta horrek gehiago irakurtzeko gogoarekin uzten gaitu. Zati gehienak erakargarriak dira, misterio bat dagoelako. Hala ere, atal batzuk ez zaizkigu asko gustatu, adibidez, protagonistaren lagun mina hiltzen zutenean. Orokorrean, asko gozatu dugu eta egilearen beste liburu bat irakurriko genuke.

Liburua gomendatu nahi duenak, kontuan izan beharrekoak: euskerazko liburuak gomendatu behar dira; 800 karaktere inguru idatzi; eta izen abizenak jarri. Bidaltzeko: dobera@dobera.com edo liburutegi@hernani.net. Edo paperean eraman Doberara edo Udal Liburutegira.

ERRUGBIA

Ondo hasi, baina ezin gustora bukatu

Valladolidekoa aurkari zaila izango zela bazekiten. Izan ere, jokaturako bost partidua irabazita atera zen El Salvador Pepe Rojo zelaira. Hala ere, Hernani ez zen kokildu, eta partiduko aurreneko puntuak lortu zituen Ander Larretxeak: 3. Jarraian, 8 puntu ere lortu zituzten hirukoloreek. Baina horixe izan zen dena. Deskantsura iristerako, El Salvadorrek 21 puntu lortuak zituen, eta partidua bukatzerako, berriz, 45. Horrela bukatu zen lehia: El Salvador 45, eta Hernani 8. Oraindik partidurik irabazi gabe, azken postuan jarraitzen du Hernanik. Datorren astean Quesosen aurka jokaturko dute, Landaren. ■

ONGINTZA

Debaldeko izen ematea, helduen jokaera aldaketak ulertzeko ikastaroan

Ongintza eta Lahar elkargoak ikastaroa antolatu dute, helduen jokaera aldaketei aurre egiten ikasteko, azaroaren 5, 6 eta 7an, 17:00etatik 20:00etara. Izena emateko: 943 55 78 54. ■

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko erdigunean pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea eta komuna. Patio irekira eta oso argitsua. Igogailua eta fatxada berria. Sartzeko moduan, amueblatua. Deitu: 630 227 630

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)